

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2018-2019

2018-2019 IKASTURTEKO SAN BENITO
IKASTOLAKO LEHEN HEZKUNTZAKO HEZIKETA
FISIKOAREN AZTERKETA PEDAGOGIKOA

EGILEA: Markel Madinabeitia Araquistain

ZUZENDARIA: Joseba Etxebeste Otegi

2019ko ekainaren 3a

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. AZTERKETA HONEN HELBURUA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. ZERGATIK IZAN DAITEKE ERABILGARRIA PRAXIOLOGIA MOTORRA HEZIKETA FISIKORAKO?.....	6
3.2. ZER DA JOKABIDE MOTORRA? ETA PORTAERA MOTORRA?.....	7
3.3. GARRANTZITSUA AL DA JOKABIDE MOTORRA EZAGUTZEA?.....	7
3.4. ZER DA JOKOA? ETA JOLASA? ZEIN FAKTOREREN ARABERA DESBERDINTZEN DIRA JOKOA ETA JOLASA?.....	9
3.5. ZER NOLAKO ERAGINA DAUKA EUSKAL KULTURAK ETA GENERO IKUSPEGIAK JOKO ETA JOLASEAN?.....	12
3.6. ZER DA BARNE LOGIKA ETA KANPO LOGIKA?.....	14
4. METODOLOGIA	16
5. SAN BENITO IKASTOLAREN EZAUGARRIAK	17
5.1. IKASTETXE MOTA.....	17
5.2. KOKAPENA.....	17
5.3. TESTUINGURU SOZIOKULTURALA.....	18
5.4. HEZKUNTZA PROIEKTUA.....	19
5.5. GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA.....	21
5.6. IKASLEAREN EZAUGARRIAK.....	22
6. AZTERKETA PEDAGOGIKOA	27
6.1. IRAKASLEAREN EKINTZA MOTORREN SAILKAPENA.....	27
6.2. JOKO JOLAS MOTAK: ESPAZIOA, DENBORA, HARREMANAK ETA MATERIALA.....	31
6.3. GENEROAREN ERAGINA JOKO-JOLASETAN.....	39
7. ONDORIOAK	42
8. ERANSKINAK	45
9. BIBLIOGRAFIA	48

IRUDIAK

1go irudia: San Benito Ikastolaren kokapena

2go irudia: San Benito Ikastolako Lehen Hezkuntzako eraikina

3go irudia: Heziketa Fisikoko eraikin nagusia

ILUSTRAZIOAK

1.Ilustrazioa. Jarduera Fisiko eta kiroletako egoera motorren sailkapena (Parlebas, P.2006).

2.Ilustrazioa. Joko jolasen "continuum"a. Euskal kulturaren arabera jarduera motorren sailkapena hauen barne logikako elementuen arabera (J. Etxebeste, 2002, p. 280).

DIAGRAMAK

1.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko ekintza motor moten azterketa

2.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren espazioaren erabileraren azterketa

3.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren denboraren erabileraren azterketa

4.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren harremanen azterketa

5.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren harreman soziomotorren azterketa

6.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren materialen erabileraren azterketa

7.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko joko jolas moten azterketa

8.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko joko jolasen generoaren araberako azterketa

1. SARRERA

Lan hau Lazkaon (Gipuzkoa) kokatzen den San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko 5.mailan egin den azterketaren inguruan joango da.

Horretarako, 2018-2019. ikasturtean Gorputz Hezkuntzan landu diren edukiak aztertzea izan da xedea. San Benito Ikastolan, nahiz eta edukiak ez izan sailkapen zehatzik, ekintza motorren domeinuen arabera sailkatu eta honi buelta bat eman zaio eta Pierre Parlebasek bere lan askotan aipatzen duen Praxiologia motorra kontutan izanda. Horretaz gain, Joseba Etxebesteren artikuluen laguntzaz, nire ustez Heziketa Fisikoa ikasgaia bezala hartuta, edukiak lantzeko eta aukeratzeko irakasle batek kontutan zer hartu behar duen azaldu nahi dut lan honen azterketa pedagogikoaren bidez, kontzeptu batzuk barneratuta izateaz gain.

Hori dela eta, San Benito ikastolako testuingurua, hezkuntza proiektua, 5.mailako ikasleen ezaugarriak eta Gorputz Hezkuntzako irakasleen ezagutzak kontutan hartuko ditut eta ea hauek edukietan lantzen ahal diren aztertuko dut. Ondoren, datuak bildu eta hauek azalduko ditut kanpo eta barne logikaren balioak aintzat hartuta, azkenik interpretazioa egin ostean eta helburuekin alderaketa egindakoan ondorioetan balorazio pedagogikoa egingo dut, Heziketa Fisiko edukiak aurrera eramateko fokua non jarri behar den adieraziz.

Gradu amaierako lan hau egitera bultzatu nauen arrazoi nagusia, Hezkuntza Fisikoko irakasle lanetan ibili naizenean eta ikasleekin saioak izan ditudanean askotan nire buruari ondorengo galderei erantzuna bilatu nahi izatea izan da: zergatik lantzen dugu harrapaketa 1go mailan, lantzen ditudan joko-jolasak egokiak dira lankidetzaren harremanetarako? Ba al dakit benetan zer lortu nahi dudan saio hauekin?

2. AZTERKETA HONEN HELBURUA

Lan honen helburua nagusia, hau da:

San Benito ikastolako 2018-2019 ikasturteko 5.mailako Gorputz Hezkuntzak zer nolako edukiak aurkezten dituen barne logika eta kanpo logika azterketaren bidez, eskolak dituen hezkuntza balioak ulertu eta aztertzeke.

Helburu hori bi azpi helburuetan zehaztu daiteke:

- San Benito ikastolako 2018-2019 ikasturteko 5.mailako Gorputz Hezkuntzak zer nolako edukiak aurkezten dituen ikasleei espazioari,harremanari, denborari eta materialari dagokionez, eskolak dituen barne logika balioak ulertu eta aztertzeke.
- San Benito ikastolako 2018-2019 ikasturteko 5.mailako Gorputz Hezkuntzak zer nolako edukiak aurkezten dituen ikasleei euskal kultura eta generoari dagokionez, eskolak dituen kanpo logika balioak ulertu eta aztertzeke.

3. MARKO TEORIKOA

San Benito ikastolako Heziketa Fisikoko 5.mailako saioetako azterketa pedagogikoa egin ahal izateko, lehenik eta behin, irakasle batek Gorputz Hezkuntzako edukiak landu ahal izateko hainbat ezagutza barneratuak izan behar ditu. Horregatik, azterketa pedagogikoaren atalean barne logika eta kanpo logikaren balioen (espazioa, harremanak, denbora, kultura materiala, euskal kultura, generoa) garrantziaz jabetzeko eta ikastolak edukiak, gaitasunak eta helburuak betetzen dituen ala ez jakiteko, ondorengo galdera hauek kontutan izatea beharrezkoa da:

- Zergatik izan daiteke erabilgarria praxiologia motorra Heziketa Fisikorako?
- Zer da jokabide motorra? Eta portaera motorra?
- Garrantzitsua al da jokabide motorra ezagutzea?
- Zer da jokoak? Eta jolasa? Zein faktoreren arabera desberdintzen dira jokoak eta jolasa?
- Zer nolako eragina dauka euskal kulturak eta genero ikuspegiak joko eta jolasean?
- Zer da barne logika eta kanpo logika?

3.1. ZERGATIK IZAN DAITEKE ERABILGARRIA PRAXIOLOGIA MOTORRA HEZIKETA FISIKORAKO?

Parlebasek (2001) definitzen duen bezala, praxiologia ekintza motorreko eta bereziki baldintzetako, funtzionamenduko eta bere garapenaren emaitzako moduetako zientzia da.

Beraz, aldez aurretik esan beharra dago kirol hezitzaileak, entrenatzaileak, Gorputz Hezkuntzako adituak ezagupenak lortu behar dituela esku hartze prozesuan erabakiak hartzeko. Hori kontutan hartuta, praxiologiak ondorengo motorrak aztertzen ditu:

- **Ekintza motora.** Egoera motorra jakin batean egokiturik dauden subjektu baten / batzuen jokabide motorrak gauzatzeko prozesua da.
- **Jokabide motorra.** Portaera motorraren antolakuntza esanguratsua da. Nortasun baten adierazpena da eta horretaz gain, pertsona baten eremu bat, gorputzaren parte hartzea funtsezkoa delarik.

- **Portaera motorra.** Lagun jardule baten adierazpen motor behagarrien multzoa da. Kanpotik ikusten denaren arabera definitzen da. Objektiboa da. Ez dago iritzien menpe.
- **Motrizitatea:** Jokabide motorren arloa eta izaera da. Motrizitatearen barruan egoera motor guztiak daude: psikomotrizitatea, soziomotrizitatea, ergomotrizitatea, ludomotrizitatea, etnomotrizitatea, joko tradizionalak edo instituzionalizatuak.

Praxiologia motorra zer den azaldu ostean, Heziketa Fisikorako oso erabilgarria dela ikus daiteke, honek hainbat ekarpen eginez. Esaterako, praxiologiak hainbat parametro jarraitzen ditu kirolen barneko azterketa egiteko: teknika, araua, espazioa, denbora, komunikazio motorra eta estrategia motorra.

Kirolen azterketen emaitzetatik, praxiologia motorrak posible da baliozko informazioa lortzea heziketaren fisikoaren irakaskuntza aplikatzeko. Ekarpenetako bat praxiologia motorrak sailkatzera baimentzen duen irizpidea edo parte-hartzaileen artean eta diren ingurunearen artean garatzen eta gertatzen den erlazioa da.

3.2. ZER DA JOKABIDE MOTORRA? ETA PORTAERA MOTORRA?

Bi termino hauek oso garrantzitsuak dira ulertzea, batetik jokabide motorra mugimenduaren zergatia irizpide duen ekintza delako eta portaera motorra, berriz, objetiboki (zergatiari garrantzia eman gabe) kanpotik mugimendua aztertzen duena da.


3.3. GARRANTZITSUA AL DA JOKABIDE MOTORRA EZAGUTZEA?

Praxiologia motorrak ikerketa objektu bezala akzio motorra dauka eta jarduera fisiko ezberdinetan nola jokatzen duen aztertzen du.

“Gorputz hezkuntzako berrikuntza ez da bilgarri berrirako helburu simple bat. Paradigma aldaketa behar du, hau da, gorputzaren jardueraren ikuskeran eta kiroleko praktika ludikoetan berrikuntza sakona. Akzio motorraren gainean erdiratutako egokitasun berri bat eskatzen du”. (Parlebas, P. 2006)

Arreta ipintzen badiogu Parlebasek (1999:46) proposatutako jarduera fisiko eta kiroleko sailkapenari eta era binarrean konbinatetik barne logikan landutako 3 irizpideri: kanpoko ingurunearen ziurgabetasun presentzia edo ez (I,I) lagunaren

presentzia edo ez (C,C) eta aurkariaren presentzia edo ez (A,A) ondorengo jarduera hauek antolatzen dituzten 8 kategoria daude:



1. Ilustrazioa. Jarduera Fisiko eta kiroleko egoera motorren sailkapena (Parlebas, P.2006).

P.Parlebasek (1999:103) akzio motorren domeinuaren kontzeptua "gorputzaren praktika guztiak kontutan hartzen diren alorra akzio motorreko irizpide zehatzeko begiradan homogeneotzat hartzen dira", gorputz hezkuntzak gure ingurunean erabiltzen dituen eta etorkizunean erabili daitezkeen egoera motor ezberdinen kategoriak elkartzea baimentzen du.

Gorputz hezkuntzako praktika motorren aniztasuna zeharkatzen duten gorputzaren esperientziako 6 mailek, ikasleek aurkitu ditzaketen egoera motorren kategoria ezberdinak dira. (Larraz, A., 2004).

6 mota hauetatik bostek jarduera fisiko eta kiroleko kategoriakoak dira eta bestea adierazpen eta arte ekintzetakoa. Azken hauek beste talde bat osatzen dute, izan ere, hauen helburua zentzuen bidezko transmisioa da, mezu sinbolikoen bidezkoa. "Domeinu honek garrantzi handia dauka. Hemendik aspektu artistiko, poetikoa, ametsetakoa, eta gorputzen bidezko transmisioa garantzzen da, heziketa fisikoan garrantzia handia izanik".

Argi dago jokabide motorra ezagutzeko ezinbestekoa dela Larrazek (2008) aipatzen dituen ondorengo 6 ekintza motorren domeinuak lantzea:

- Bakarkako ekintzak: Gorputz eskemak garatzeko jarduerak, gorputzaren kontzientzia hartzeko jarduerak, egoera fisikoa hobetzeko jarduerak, gimnasia deportiboa, atletismoa, patinajea, igeriketa ...
- Bat baten aurkako ekintzak: Nagusiki besteekiko aurkakotasun elkarrekintzak ematen dira. Borroka jolasak, judoa, badmintona, eskupilota 1x1 ...
- Elkarlaneko ekintzak: Ikasleek helburu komun bat lortzeko, elkarlaneko elkarrekintza motorrez osaturikoak: taldeko akrobaziak, jolas kooperatiboak, ipuin motor kooperatiboak ...
- Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak: Helburua elkarlanean arituz aurkako taldea gainditzea da. Nagusiki elkarlan eta aurkakotasuneko elkarrekintza soziomotorrak ematen dira: saskibaloia, eskubaloia, boleibola, futbola, errugbia ...
- Ziurgabetasun inguruneko ekintzak: Ingurune fisikora egokitze jarduera fisikoak dira. Ziurgabetasuna duten jarduerak dira: eskalada, orientazioa, mendiko bizikleta, piraguismoa ...
- Adierazpen eta arte ekintzak: Izaera artistikoa, espresioa edo komunikatiboan duten jarduera fisikoak dira: jolas dramatikoak, dantzak, koreografiak, antzerkiak ...

3.4. ZER DA JOKOA? ETA JOLASA? ZEIN FAKTOREREN ARABERA DESBERDINTZEN DIRA JOKOA ETA JOLASA?

Joseba Zulaika antropologoak adierazten duen bezala (1985), argi izan behar dugu joko eta jolas hitzak euskaraz esanahi ezberdina dutela, izaera ezberdinekoak baitira. Irakasle askok ez dakizkitez bi kontzeptu hauen ezberdintasuna adierazten, horregatik garrantzitsua da hemendik hastea.

Jokoa

Lehia, birporalitatea, neurtutako denbora eta toki zehatza, eta irabazlearen anbiguotasun gabeko definizio argia. Atsegin hartzeko, eta askotan dirua bitarte dela, egiten den jarduera arautua, lehiaketa-sistemaren edo zoriaren ondorioz irabazlea eta galtzailea sortzen dituena.

Jokoa askotan nagusiek egiten dutenarekin erlazionatzen da, nahiz eta umeek ere jokoetara jolastu.

Kontzeptu hau nahiko konpetitiboa da, beti dago irabazle eta galtzaile bat eta beraz benetan jolasten da.

Jolasa

Jolasa kontzeptuak, ordea, ondo pasatzeko jolasten gara. Ez dago irabazle argirik. Jolasten direnek, aldi berean, irabazi eta galdu egiten dute. Ekintza natural bat da umearentzat atsegina suertatzen zaiona. Beraz, jolasa kontzeptua gehienbat umeen jolasarekin erlazionatzen da.

Kontzeptu hau ez da izan behar konpetitiboa. Dakigunez hainbat jolas mota sartzen dira hitz honen barruan.

Etxebestek (2001) adierazten duen bezala, kontutan izan behar da "jokoa" eta "jolasa" fenomenoen barne-logika lau ezaugarri biko konbinaketa datzala, hau da: harreman psiko edo soziomotorra, espazio ziurra edo ziurtasunik gabea, irabazledun edo irabazlerik gabeko denbora eta tresnadun edo tresnarik gabeko joko-jolasa.

Beraz, ondorengo taulan azalduko dudan bezala, erpin batean "berezko jokoa" dago, aurkeztutako lau joko ezaugarriekin, eta bestean "berezko jolasa", jokoaren kontrako lau jolas ezaugarriekin.

Hau kontutan izanik, berezko jokoaren ertzetik, onar daiteke, honen hiru ezaugarri izango dituzten jokoak eta beharrezkoa denez, berezko jolasaren ezaugarri bakar bat. Joko talde horrek ia berezko jokoaren ezaugarri guztiak dauzkaten jokoek osatuko dute. "Ia jokoak" deituko ditugu.

Berezko jolasaren aldetik, berriz, honen hiru ezaugarri izango dituzten jolasak eta berezko jokoaren ezaugarri bakar bat. Jolas talde horrek ia berezko jolasaren ezaugarri guztiak dauzkaten jolasek osatuko dute. Horiei berriz, "ia jolasak" deituko ditugu. Etxebestek (2002) egindako taula hau oso baliagarria da hau argitzeko:

Berezko Jokoa	Ia Jokoa	Jolas-Jokoa	Ia Jolasa	Berezko Jolasa
Jokoaren 4	Jokoaren 3	Jokoaren 2	Jokoaren 1	Jokoaren 0

aldagai	aldagai	aldagai	aldagai	aldagai
Jolasaren 0 aldagai	Jolasaren 1 aldagai	Jolasaren 2 aldagai	Jolasaren 3 aldagai	Jolasaren 4 aldagai

2. Ilustrazioa: Joko jolasen "continuum"a. Euskal kulturaren arabera jarduera motorren sailkapena hauen barne logikako elementuen arabera (J. Etxebeste, 2002, p. 280).

Horretaz gain, irakaslearen barne pentsamendua proposatutako joko eta jolasetan adierazten da eta hau programatutako egoera motor horien barne logika (Parlebas, 2001) aztertuz ikus daiteke. Ikerketa honetan barne pentsamendu hori agerian jarri nahi da, gorputz hezkuntzako eskoletan eginiko joko-jolas bakoitzaren espazio eta denborarekiko harremana, partaideen arteko erlazioak eta materialaren erabilera sakontasunean aztertuz.

Espazioaren erabilera

Gorputz hezkuntzako ikaslea jarduera fisikoak egitean bi espazio motekin erlazionatzen da: aldatzen ez diren eremu egonkorrekin, eskolako patioa kasu; eta ziurgabetasuna sortzen duten ingurune aldakorrekin: ingurune naturalekin. Bata edo bestearen aukeraketak ikasleari balore eta ikasketa desberdinak eskainiko dizkio. Lehenengoak, egonkorrak, ziurtasuna, segurtasuna eta konfiantzako sentrazioak sorrarazten dituen bitartean, bigarrenak, espazio aldakor batetara moldatzeko beharra eskatuko dio ikasleari.

Denboraren neurriak

Joko eta jolas bakoitzak denbora modu desberdinean biziarazteko aukera eskaintzen digu. Batzuetan, jardueraren barne logikak adieraziko du joko edo jolasaren bukaera. Horietan, jokoak berezkoa duen denboraren egituraketak: mugatutako denborak edo tanteoak; irabaztearen plazeraren bila bultzatzen du partaidea. Beste kasu batzuetan, berriz, jolasaren bukaera, kanpo logikaren elementuren batengatik ezarria izango da: eskolaren amaiera, irakaslearen agindua ...

Partaideen arteko elkarrekintzak

Jarduera fisikoak egiten ari iren ikasleen arteko elkarrekintza bi erlazio modutan banatu dezakegu: modu psikomotorrean edo soziomotorrean. Egoera psikomotorren bidez ikasleak bere bakarkako gaitasunen garapena lortuko du,

norberaren balore indibiduala bultzatuz. Egoera soziomotorretan, berriz, jardule ikasleak elkarrekintzan arituko dira; kide edo arerioekin komunikatu beharrean gertatuko dira, mezuak adierazteko edo ezkutatzeko, emozioak hartu eta emateko. Egoera hauetan ikasleak baloia edo pilota noiz pasa behar duen ikasten du, noiz harrapatu edo eta noiz bultzatu; nori lagundu eta norekin ezkutatu erabakitzen du eta erlazionatzeko ehunka modu desberdin bizitzen ditu. Kooperazio edo oposiziozko erlazioan, rola aldatuz, laguntzen edo besarkatzen, emozioak adierazi eta bultzatzen dituzten harremanetan. Norbera eta kidea errespetatuz tratatzen elkarbizitzen duen bitartean, ikasten du bizitzen.

Erabilitako materiala

Larrañagak (2008) adierazten duen bezala, teknologiaren garaian bizi gara eta hau egunerokotasuneko edozein arlotan ikusi genezake. Eskola, gizartearen pare joateko beharrez, teknologia berrietan eguneratua egoteko esfortzua egiten ari da. Ordenagailu, arbela digitala edo bideo moderno horietako bat ez duen ikastetxerik ez dago gaur egun. Kiroletan berdin gertatzen da, teknologiarekin bat zaude, edo ez daukazu zer eginik eskalada, parapentea edo txirrindularitzan esate baterako. Heziketa fisikoko eskoletan erabiltzen den materiala gizartearen garapenarekin bat doala esan genezake. Erabiltzen diren tresna eta material desberdinak, modernoak eta teknologia aldetik eguneratuak daude.

3.5. ZER NOLAKO ERAGINA DAUKA EUSKAL KULTURAK JOKO ETA JOLASEAN? EUSKAL HERRIKOAK ZEINTZUK DIREN ETA INTERNAZIONALAK ZEINTZUK DIREN EDO ZEINTZUK DIREN GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK

“Denok bizi gara kultura baten baitan”. Weberrek (1905) zioen bezala, gizakumeok gu geuk sortutako esanahi eta sinboloen sareetatik zintzilik bizi garen animaliak gara. Kulturak pentsamendua eta sentimendua ematen digu. Gure kulturaren baitan ere ikasten ditugu jarrera disfuntzionalak eta aurreiritzi desagokiak, atzerakoiak eta seko okerrak. Begiak ireki besterik ez dago eta ikusi militarismoak, kapitalismoak, edota supernaturalismoak (denak gure mendebaldeko kulturaren bihotz-bihotzean) produzitzen dizkiguten mustrokeriak. Euskaldunak ez gara diferente: gure kultura tradizionala ere egon daiteke dispartez josia” (J. Zulaika, 1985).

Emakumeen kasuan euren egun bakoitza aurrekoaren berdina dela esan genezake, ez dute jai egunik eta atzo bezala gaur eta bihar ere etxea garbi mantendu eta besteekikoa egitea izango da euren lana. Egunero berdina egitearen "plazerean" hezten direla esan daiteke honela, eta errepikapenean oinarritzen dira azken finean emakumeei gehien esleitu izan zaizkien praktikak: gomaren jolasa, soka-saltoa (ez naiz sartuko soka-saltoko kantek emakumeak "errealizatu" zitezten edo, zer zioten aztertzeraz: aita, ama, zenbat urteekin ezkonduko naiz ...) ...

Hala ere, baserrian bazen etxera dirua ekartzeaz eta etxea zaintzeaz gain elkarrekin egoteko tartea ere, elkarrekin gozatzeko tartea edo elkarrekin egote hutsarekin gozatzeko tartea. Hau, praktika motorretara eramanez gero, jolasetan aurkitzen dugu, umeena izan delarik gehien bat. Jolasa aurrera begirako helbururik gabe egiten da, elkarrekin ongi pasatzeko, unean uneko erabakiak hartuz gozaten da.

Honela beraz, gizonen jokoak, emakumezkoen errepikapeneko jolasak eta etxeokoen denbora elkarbanatzeko jolasak bereizten ditugu euskal kultura tradizionalan.

Gaur egun, badakigu sailkapen horiek atzean gelditu direla etxe askotan. Gizartean, gizon langilearen paper hori ez da gehiegi aldatu. Hala ere, emakumea, etxea zaintzeaz gain soldatapeko lanean sartu da. Eta umeari dagokionez hezkuntza esparrua da bere gune zentrala, eta txiki-txikitatik ingurukoekin konpetentzian sartzen dute.

Bilakaera historiko honek jarduera fisikorako ohiturak ere asko aldatu ditu. Gizonen kasuan, jokoan jarraitzen dutela esan daiteke, irabazteko jokatzu, futboleak, saskibaloian, pilotan ... Emakumeak lan mundura sartu ahala, ikusi dugu hauek ere konpetentzia kirolak gero eta gehiago praktikatzeko joan direla, irabazlearen baloreak hauengan ere sartuz joan direla islatuz. Eta umei eskolan emandako konpetentziak ere lehiakorrako egin dituzte jarduera fisikoaren arloan, jolasa ia guztiz alboratuta dutela ikus baitaiteke, kirol hegemonikoetan ikusten baita gehien.

Irakurketa honekin ikusten da pertsonen baloreen arabera, plazerak eta beharrak aldatuz doazela eta praktika motorren arloan ere islatzen da hori. Horrek esan nahi du, praktika motor bakoitzak ere esanahi bat duela, bere baloreak dituela. Honen aurrean, harremanak jolas batzuetatik abiatzeetatik irauliko ez ditugunaren

jakitun, galdera batzuk sor daitezke: zein dira proiektuarekin bat egiten duten jarduera fisikoak? Posible da, alderantzizko ariketa batekin, jarduera fisikoen bidez baloreak landuz harreman ereduak aldatzen joatea? Nola egin dezakete ekarpena jarduera fisikoek elkartasunean oinarrituko den gizarte baterako?

3.6. ZER DA BARNE LOGIKA ETA KANPO LOGIKA?

Barne logika

Barne logika egoera motorraren berezko ezaugarrien multzoa da eta ezaugarri hauek, egoera motorraren praktika aldiak ikus daitezke. Ezaugarri hauek ezberdinak dira jolas batetik bestera, hauek aldatuz gero beste jolas mota batean bihurtuko baitziren, beste ezaugarri eta arau batzuekin. Barne logikaren barruan lehen aipatutako lau atal ezberdintzen dira: espazioa, harremanak, denbora eta materiala.

Kanpo logika

Kanpo logika, berriz, zehaztutako egoera motorretik kanpo dauden ezaugarriak, egoera motorrean duten eragina ikustean datza. Hau da, lekua eta gizartearen arabera jokoak ikusteko moduak aldatu egiten dira. Eragile hauen artean, barneratutako baloreak, ikus puntuak edo gizarteak zehaztutako portaerak aurkitzen dira. Horren inguruan, Parlebasek (2001) lau ataletan banatu zituen eragile hauek: espazioa, denbora, partaideak eta materiala.

- Espazio atala ikertzeko garaian, garrantzitsua da, egoera motorra zein eremuetan jolastuko den jakitea (herria, hondartza, eskola, basoa ...). Horren arabera, jokoak ikusteko edo ulertzeko moduak baldintzatuko dira, zonalde bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituelako. Esandako adibideen artean, lekua itxia, estalia, erdi-estalian ... ere sailkatzen dira.
- Denbora atalean, kontutan hartu behar dira, denborarekin erlazionatutako aspektu desberdinak (arora, egutegia, ordutegia, urtaroak ...). Jakin eta zein egoera motor praktikatu nahi den, hauen interpretazioak eta pentsamenduak desberdinak izango dira.
- Parte hartzaileen inguruan, ezaugarri hauek (adina, generoa, kultura, ekonomia maila ...) eragin handia izango dute, jokoak interpretatzeko garaian. Hau da ume bakoitzaren ezaugarrien arabera, modu batean edo bestean ulertzeko gaitasuna edukiko du.

- Materiala, egoera motorra aurrera eramateko erabiliko dituzten materialak informazio ugari emango dute, bizi diren egoera modu egoki batean ulertzeko: materialen egoera, zerez eginga dagoen, funtzioa, balioa ... eta datu guzti hauek jakin ondoren, egoera motorra non gertatzen ari den jakin dezakegu.

4. METODOLOGIA

Lan hau aurrera eramateko, San Benito Ikastolako 2018-2019ko ikasturteko 5.mailako Heziketa Fisikoko saioak kontutan hartuko ditut eta edukiak zeren baitan sailkatuta dauden aztertuko dut. Horretarako, saio horietan behatutakoa, irakasleekin izandako elkarrizketan jasotako erantzunekin eta ikastolako hezkuntza proiektuarekin bat egiten duen ikusi, eta ekintza motorren domeinuak, joko jolas motak, barne eta kanpo logikak kontutan hartuta datuak atera eta Heziketa Fisikoen saioetan edukien bidez lortu nahi denaren interpretazioa egingo da. Azkenik, balorazio pedagogikoa egingo dut nire ikuspegiarekin alderatuta.

Testuinguraketa errazagoa egiteko, Lazkaoko herria non dagoen azalduko da, bertako testuinguru soziokulturala zein den azalduz eta ikastolako hezkuntza proiektua ere, 5.mailako ikasleen ezaugarriak zein diren, kontutan hartzeaz gain.

Datuen bilketa errazago azaltzeko diagrama bidezko grafiko batzuk azalduko dira, bertan portzentajeen kopurua errazago ikusteko eta alderaketak egiteko.

Honekin batera, azterketa pedagogiko diagramen datuak nondik atera diren ikusteko, eranskinen atalean sailkapen ezberdinak tauletan egongo dira.

5. SAN BENITO IKASTOLAREN EZAUGARRIAK

Azterketa pedagogikoa egin ahal izateko, San Benito Ikastolaren hainbat datu jakitea beharrezkoa da, testuinguraketa bat egin ahal izateko. Horretarako, zein ikastetxe mota den, non kokatuta dagoen, zein testuinguru soziokulturaletan dagoen, ikastolaren hezkuntza proiektua zein den, Gorputz Hezkuntzako irakasleek Heziketa Fisikoari buruz dakitena eta 5.mailako ikasleak zein ezaugarri dituzten azaltzea ezinbestekoa da.

5.1. IKASTETXE MOTA

San Benito ikastola "D" eredu jarraitzen duen ikastetxea da, hori dela eta hizkuntza nagusia euskara da. Horretaz gain, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta ertaineko irakaskuntza eskaintzen duen ikastetxea da (0-18). Euskal Herriko ikastolen elkarte partaideko kidea da. Trinity College Londoneko azterketak egiteko baimena dago.


Bere identitate ezaugarriek bertan matrikulatzen diren ikasleen ezagupen maila eta gaitasunen garapena bideratu nahi dute.

Ikastola, 92 irakaslek eta 1228 ikaslek osatzen dute. Azken hauek, haur eskolatik hasi daitezke beraien ibilbide akademikoan, batxilergoa bukatu arte, etapa guztietatik igarota (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa). Horrek esan nahi du, San Benito ikastolak ikaslearen formazio ibilbide luzea eskaintzen duela.

2,3 eta 4 lerroko zentroa da, 3 eta 4 gela (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta 2 gela (Batxilergoa).

5.2. KOKAPENA

San Benito ikastola Lazkao (Gipuzkoa) herrian dagoen ikastola da, eta Euskadi Enparantza Plazan aurkitzen da. Aipatu herriko udalaren eraikinaren ondoan kokatzen dela. Horretaz gain, San Benito ikastolak lau eraikin ezberdin ditu: Mikelar eraikina (Haur eskola), HE eraikina, HH-LH eraikina eta DBH-DBHO eraikina.



1go irudia: San Benito Ikastolaren kokapena



2go irudia: San Benito Ikastolako Lehen Hezkuntzako eraikina

5.3. TESTUINGURU SOZIOKULTURALA

San Benito ikastolara Lazkaoko, Olaberriko, Beasaingo, Ataungo, Segurako, Zeraingo, Gabiriako eta Mutiloko ikasleak etortzen dira ikastera. Horretaz gain, herrialde ezberdinetako ikasleak ere badaude: Pakistan, Errumania, Saudi Arabia, Ukraina, Maroko eta India. Esan daiteke, aniztasun kultural handia dagoela.

5.4. HEZKUNTZA PROIEKTUA

Hizkuntza eta Kultura

San Benito ikastolaren heziketa jarduerak ikasleriaren testuingurua du abiapuntutzat, langile eta ikasleriaren arteko harremanak bideratzeko erabiltzen den hizkuntza euskara izanik. Honekin batera, ikastolako partaide bakoitza (Gurasoak, Langileak eta Ikasleak) euskara eta euskal kultura ezagutzen erabiltzen eta zabaltzen konprometitzen da. Bestalde beste herrialdeetako hizkuntzak eta kulturak errespetatzen dira.

Aniztasun ideologikoa

Ikastola erakunde pluralista da. Bere inguruan finkaturik dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinen elkarbizitzarekiko errespetua indartzen du:

- Partaide bakoitzaren aukera politiko eta soziala errespetatuz. Ikastolak, Politika giza ekintza kultural gisa ulertzen du eta ez du jarrera proselitista edo dogmatikorik onartzen.
- Partaide bakoitzaren sineskera errespetatzen du. Erlijio, ekintza kultural gisa jakinarazten du eta doktrinamendu arloa ikastetxeko ekintzetatik kanpo gauzatu behar dela ulertzen du.

Kudeaketa era

Parekidetasun irizpidean oinarrituz, ikastolaren funtzionamendu eta kudeaketa era parte-hartzaile eta demokratikoa da. Bertan, estamentu guztiek parte hartzen dute, eragile eta erantzule direlarik.

Gaineraz, ikastolan hauen artean sor daitezkeen eztabaida guneak gainditzeko erabiltzen den baliabidea kontsentsua da.

Heziketa integrala

Ikaslearen gaitasun guztien garapen harmonikoa bultzatzen du. Hauen behar berezietan erantzuten die, beharrezko baliabideak erabiliz.

Hezkidetzaren printzipioa ere berea egiten du. Emakume eta gizonezkoen arteko zereginen desberdintasuna gainditzeko egiten du lana. Bestalde, ikastolak gizarte

garapenerako garrantzi berezia duten alderdiak onartzen ditu: osasun hezkuntza, ingurugiro hezkuntza, kontsumorako hezkuntza ...

Honetaz gain, giza balore eta eskubideetan oinarritutako etika jorratzen du. Irakasleriaren jarrera kritikoa eta parte-hartzailea bultzatzen ditu.

Metodologia

Ikastolako hezkuntza proiektuak metodologiaren inguruan ondorengo puntuak azpimarratzen ditu:

- Ikasketa esanguratsua bera egiten du, edukien esanahi logikoa, psikologikoa eta funtzionaltasuna ziurtatuz.
- Ikastolan, ikaslea da bere garapenean eraikitzaile nagusia. Metodologia aktiboa bultzatzen du.
- Ikastolak duen metodologia ikasle-irakasle, ikasle-ikasle eta ikasle-testuingurua elkarrekintzetan oinarritzen da.
- Irakasleriaren talde lan koordinatua bultzatzen du. Bai helburu eta edukiak aukeratzeko, bai metodologia eta diziplina arteko ekintza konkretuak antolatzeko eta bai ebaluazio irizpide bateratuak erabiltzeko irakasleriaren kontsentsua ezinbestekoa da.
- Ikastolak, irakaskuntzaren kontzeptu, prozedura, jarrera, balore eta arauen arteko lotura eta oreka ezinbestekotzat jotzen du.
- Tutoretza egokiak duen garrantzia azpimarratuz, etengabeko orientazioa bultzatzen du.

Irakaskuntzaren eguneraketa

Irakasleriaren etengabeko prestakuntza eta eguneraketa bultzatzen ditu. Horretarako irakasleriarengan berrikuntza, esperimentazioa eta ikerketa giroa ahalbidetzea da.

Kanpo proiektzioa

Ikastolak, ikaslea bere ingurunera errespetu osoz egokitu dadin, ikaslearen nortasuna garatzen duten oinarritzko printzipioak eskaintzen ditu.

Ebaluaketa

Etengabeko ebaluaketa guztiz beharrezkotzat jotzen du, kontzeptuak, prozedurak eta balore, jarrera eta arauak ebaluatzen ditu beraien bitartez helburutzat formulaturik dauden gaitasunen garapen maila baloratuz.

5.5. GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

San Benito Ikastolako gorputz hezkuntzako irakasleei egindako elkarrizketa kontutan izanda, (3 irakaslek egiten dute lan ziklo ezberdinetan 2 irakaslek urte askotako esperientzia dute eta beste bat hasi berria da) argi geratzen da, bai marko teorikoan zein azterketa pedagogikoan kontutan hartu diren atalek ez dutela bere garrantzia izaten saioak prestatzerako garaian. Urtero nahiz eta edukiak aldatzeko esfortzua egin Gorputz Hezkuntzan ezarrita dauden helburuak betetzen saiatzen dira, 5.mailako Gorputz Hezkuntzan kontutan hartzen direnak ondorengoak izanik:

- Bakarkako kirol desberdinetan oinarrizko teknikak ezagutu.
- Taldeko kirolean edo lanetan oinarrizko teknikak eta abileziak ezagutu.
- Jarduera ezberdinetan aktiboki parte hartu.
- Jolasetan arauak errespetatu eta besteekiko jarrera egokia azaldu.

Honetaz gain, behatutako saioak ikusita irakasleek lehen marko teorikoan aipatutako joko-jolasen bereizketa ondo ez dutela egiten ikusi da, benetan saio batean lortu beharreko kompetentziak edota helburuak orokorrak bakarrik izanik eta ez barne eta kanpo logikako balioek adierazten dituzten atalak kontutan harturik.

Beraz, beharrezkoa izango da ulertzea Parlebasek (2001) "instituzionalizatutako lehiaketa moduan kodifikatutako egoera motorren multzoak" bezala izendatutako kirolak aztertzerakoan barne logikari egiten dion erreferentzia. Izan ere, kasu honetan, gorputz hezkuntzako irakasle batek argi izan behar du, barne logika bat zer den, ikasle batek gorputz hezkuntza lantzen duenean zein helburu lortu nahi diren txertatzeko. Barne logika egoera motor (mugimendu bat gertatzeko momentu bat) baten barruan ekintza motorra gauzatzeko behar den sistema guztia da.

Hori dela eta, barne logikako lau elementu edo ezaugarri bereiztea beharrezkoa da: espazioa (non garatzen den), denbora (amaiera duen edo ez) harremanak (parte

hartzaileen arteko erlazioak) eta materiala (tresnaren bat edo ez erabiltzen al den) kanpo logikakoak kontutan hartzeaz gain.

5.6. IKASLEAREN EZAUGARRIAK

Azterketa 5.mailako heziketa fisikoko saioetan zentratzen denez, lanak 10-12 urte bitarteko ikasleen ezaugarriak. Informazio hau ezinbestekoa izango da gorputz hezkuntzako irakaslearentzat saioen nondik norakoak diseinatzerako garaian.

	OINARRIZKO ABILEZI MOTORRAK
JARRAITZEN DITUZTEN HELBURUAK IKASLEEN EZAUGARRIAK	Ikaskuntza polibalenteak jarraitzen dituzte
	Transferentzia printzipioa bultzatzen dute.
	Oinarri motor zabal baten formakuntza jarraitzen dute
	Helburua ez da errendimendua ez eta maila gorena lortzea
IKASLEEN EZAUGARRIAK	6-12 urte
GAITASUN MOTORRAK	Pertzepzio eta koordinazioak gaitasun fisikoen gainean
ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK	Bat bateko mugimendu naturalean

Lehen Mailako Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek jadanik esperientzia handia dute eskolan eta bizitzan. Horrek lanerako autonomia sendotzen du, eta informazio-bidea ematen die, ikaskuntza konplexuagoak lortzeko lagungarri.

Gehienetan, pubertaroa iragartzen duten aldaketa fisiko eta fisiologikoak agertzen hasten dira neska-mutilengan. Aldaketa horiek, bestetik, eragina izango dute norberaren heltze-prozesuan eta harreman-eremuetan.

Trebetasun intelektualak ahulak eta mugatuak dira oraindik, baina gero eta askotarikoagoak eta malguagoak. Irakasleek aintzat hartu behar dituzte 10-12 urteko haurren garapen fisiologiko, psikologiko eta kognitiboaren ezaugarriak, eta,

gainera, taldearen sozializazio-eginkizunaren garrantzia eta ikasle horiek besteen ikuspuntuak integratzeko duten gaitasuna balioztatu behar dituzte.

Garapen psikomotorra

10-12 urteko neska-mutilek jarduera gero eta sistematikoagoak eta zehatzagoak egin ditzakete, eta, hala, ahalmen psikomotoretik errendimendu eta atarramentu handiagoa atera.

Haien garapen fisikoa, erresistentzia, lastertasuna, potentzia muskularra, malgutasuna eta beste gero eta handiagoak eta eraginkorrak dira, eta eguneroko hainbat egoeratan aplikatzen dituzte. Horren ondorioz, sarritan lehiara jotzen dute.

Adin horretan, neska-mutilek artikulazioen eta haien mugikortasunaren kontzientzia hartzen dute, gorputz-atalen mugimenduak okerrik gabe kokatzen dituzte, muskuluen tonua eta arnasketaren erritmoa ondo samar kontrolatzen dituzte, eta norberaren gorputza adierazpide garrantzitsua da.

Aldi berean begiak eta eskuak erabiliz ekintza konplexuak modu koordinatuan egiteko gai dira.

Geldirik daudenean oreka ona izaten dute. Mugimenduak, berriz, harmoniatsuak eta seguruak dira. Hala, ekintzak hobetzea eta fintzea lagungarri izan daiteke, ikaskuntza aberatsagoak eta orotarikoak egiteko.

Espazioko orientazioari esker, besteak erreferentziatzat harturik koka daitezke, objektuak elkarrekin erlazionatu, espazioaren eta ibilbideen adierazpen grafikoak egin, eta mugimenduak igarri.

Denboraren egituraketari esker, berriz, ekintzak denboran ordenatu ahal dituzte, eta egitura erritmikoak (motrizitatearen arlokoak) hauteman, sinbolizatu eta ebatzi.

Garapen kognitiboa

10-12 urte bitartean, neska-mutilek erabat garatuko dituzte eragiketa zehatzen garaiari dagozkion estrategia intelektualak. Eragiketak egiteko, euskarri zehatza, eta oraindik zuzenean hautemangarria izan behar dute. Zikloaren amaierara arte

ez dira hasiko hurbileko errealitate horretatik aldentzen, eta kontzeptuak erabiltzen. Orduan, pentsamendu formalaren aldiaren sartuko dira.

Eragiketa gero eta konplexuagoak egiteko gai dira, pentsamendu logikozehatzaren aldiaren: irizpideak aurreratzea, gorputzen, pisu eta bolumen ezaugarriak aldatzen ez direla konturatzea, eta ezaugarrien aniztasunaz ohartzea. Horrek guztiak laguntzen die errealitatera modu objektiboan hurbiltzen eta erantzun egokiak lantzen, inguruaren eskakizunen arabera.

Malgutasun handiagoz pentsatzeko gai direnez gero, egoera bera hainbat ikuspuntutatik hautemateko gauza dira, eta jarrera irekiagoak har ditzakete, afektibitateari hain lotuta ez daudenak.

Sinbolizatzeko gaitasuna handitzen da, hizkuntza eta arrazoibide logiko-matematikoa garatzearekin batera. Horri esker, hobeto ulertzen dute errealitatea, eta espazioan zein denboran urrunago dauden egoeretara iristen dira.

Inguru hurbileko egoera jakin batzuk orokortu eta beste kontzeptu batzuei aplikatu ahal zaizkiela konturatzeak kontzeptu eta ideia orokorrak eratzen laguntzen die. Kontzeptuen arteko erlazioak ezarri eta kontzeptuekin eragiketak egiten dituzten neurrian, pentsamendu abstrakturako bidea urratuko dute apurka-apurka.

Ziklo honetan ikasleek adi egoteko eta kontzentratzeko gaitasun ona dute, eta hori oso lagungarri zaie, proposatutako helburuak modu eraginkorrean berenganatzeko. Dena dela, lanerako ahalmen horrek oztopoak izan ditzake, interferentzia psikoafektibo ugari gertatzen hasten baitira (atentzioa emateko jokoerak, aurka agertzeko jarrera, desordena ...).

Lortu duten autonomia pertsonalak jarduerak planifikatzen eta egiten laguntzen die. Lanerako gaitasun ona dute, eta ez dira erraz nekatzen. Beren arrazoibideen eta mugen kontzientzia handiagoa hartzen dute. Hala ere, errendimenduan gorabeherak izan ditzakete, konstantzia eta erantzukizuna oraindik behar bezain finkaturik ez daudelako.

Garapen afektibo eta soziala

10-12 urteko neska-mutilak haurtzaroa utzi eta aurre-nerabezaroan sartzen ari dira. Ikastaldeak bere homogeneousotasun erlatiboa galtzen du, taldekideen arteko garapen-desberdintasunak nabarmenagoak baitira.

Garapen-desberdintasun horiek taldekideen interesen arteko aldea areagotuko dute. Buruzagiaren esku-hartzeak pisu handia izango du sortzen diren arazoak konpontzeko.

Agintearekin lehen gatazkak sortzen dira, beren burua baietsi beharraren ondorioz. Gurasoen eta irakasleen erreferentzialtasuna ahuldu egiten da, eta haien aginpidea kolokan dago. Dagokien gizarte taldean beren lekua eta eginkizuna aurkitu behar dituztenez gero, neska-mutilek beren ekimenez jarduten dute, eta jarrera sasi helduak izan ditzakete, sarritan imitazioz.

Errudun sentitzen dira, eta beren burua baietsi behar izaten dute; ondorioz, antibalentzia-sentimenduak izaten dituzte. Oraindik ere helduen presentzia behar dute segurtasun pertsonala lortzeko.

Pentsamendua garatzearekin eta komunikazio-ahalbideak areagotzearekin batera, ikasleak gai dira gizarte arlo gero eta zabalagoetara egokitzeko, eta hurbileko ingurutik urruna dauden pertsonekin harreman hobekak eta aberatsagoak dituzte. Besteekiko harremanetan, besteen ikuspuntua berenganatzeko gai dira, haien pentsamendua malguagoa da, eta norberaren eta bestearen ikuspegia, batera, kontuan izateko gai dira.

Heldutasun afektibo-sexuala

Gorputzaren eta sentimenduen eboluzioa da ziklo honetako ikasleei sortzen zaizkien gatazken arrazoi nagusietako bat.

10 urtetik 12 urtera bitartean, pubertaroaren lehen ezaugarriak agertzen dira. Oro har, neskak mutilak baino lehenago iristen dira etapa horretara.

Gorputzaren aldaketek eta sexualitatearen ernatzeak sentimendu kontraesankorrek sortuko dizkiete beren itxura fisikoari eta sentipenei buruz: gorputzak poza eta lotsa eragiten dizkie aldi berean, pentsamenduetan desira eta beldurra nahasten dira, exhibizionismo-jarrerak agertzen dira (garapen fisikoarekiko eta estetikarekiko kezka, bere sexuko jokaera estereotipatuak erakusteko interesa ...) eta intimitatea zorrotz babesteko gogoak. Batzuetan, lotsati eta segurtasunik gabe agertzen dira, eta beste batzuetan, ordea, bortitz jokatzeko dute. Hezitzaileak kontuz eta ulerkortasunez jokatu behar du, ikasleei laguntzeko prozesu horretan.

Garapen morala eta transzendentziara irekitzea

Pentsamenduaren garapena, berdinen arteko elkarrekintza eta familiako harremanak direla eta, ikasleek balio eta sinesmen batzuk berenganatzen dituzte apurka-apurka. Horri esker, aurrera egin dezakete judizio arrazoituak egiteko bidean, norberaren eta besteen interesak eta premiak betetzeko jardutea bidezkoa den neurrian.

Arau moralez hausnartu eta modu kontzienteagoan ulertzen dituzte; eta jokabide-irizpideak lantzen dituzte.

Heltze-prozesu orokorrak eta besteengandik beren buruari buruz jasotzen duten irudiak eratuko dute, apurka-apurka, haien autokontzeptua. Taldearekiko elkarrekintzak eta balio-sistema bat bereganatzeak haien autoestimua eratuko dute. Beren burua hobeto ezagutuz eta gehiago onartuz, nortasunaren hazkunde harmoniatsua eta afektibitatearen integrazio egokia lortuko dituzte.

Beren nortasuna bilatzeak gizakiaren jatorriari eta patuari buruzko galderak egitera bultzatzen ditu. Hala, erlijio-sinesmenen zentzua ulertu, ematen duten erantzuna onartu, eta modu kontzientean bildu ahal dira sinestun taldeetara, existentzia ikuspegi transzendentetatik interpretatzeko eta bizitzeko.

6. AZTERKETA PEDAGOGIKOA

Azterketa pedagogikoa aurrera eraman ahal izateko, ondorengo puntuak kontutan izango dira:

- Ekintza motorraren domeinuak eta ekintza motor motak.
- Joko jolas motak: espazioa, denbora, harremanak eta materiala
- Joko jolasen jatorria
- Joko jolasak generoaren arabera


6.1. EKINTZA MOTORRAREN DOMEINUAK ETA EKINTZA MOTOR MOTAK

Atal hau oso garrantzitsua da ezagutzea, izan ere, hau kontutan izanik, San Benito ikastolako Lehen Hezkuntzako 3.zikloko 5.mailako Heziketa Fisikoko 2018-2019 irakasleek edukien sailkapenik egin ez dutenez (jarduerak eta bakoitzaren iraupena), ekintza motorren bidezko sailkapena egingo balitz bezala kontutan hartu da (gehien hurbiltzen baita edukien sailkapen hau) azterketarekin hasteko. Hala eta guztiz ere, Larrazen (2008) ekintza domeinuen sailkapena oso orokorra da, izan ere, nahiz eta harremanetan zentratu egon, ez ditu gainerako barne eta kanpo logikako balioak kontutan hartzen (espazioa, denbora, materiala, kultura, generoa). Eta ekintza motor bateko edukian beste eduki gehiago landu daitezke. Adibidez, gorputz adierazpenean oreka landu daiteke edota euskal pilota banaka, binaka elkarlaneko ekintzetan ...

EKINTZA MOTORRAK	SAIOAK
Bakarkako ekintzak	Oreka ^{*5} , Atletismoa, Abilezia Jolasak ^{*10}
Bat baten aurkako ekintzak	Euskal Pilota ^{*3}
Elkarlaneko ekintzak	Jolas kooperatiboak*, Akrosport ^{*6}
Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak	Jolas lehiakorrak ^{*1} , Herri Kirolak ^{*2} , Softbola ^{*8} , Jolas Librea ^{*9} , Colpbol, Ultimate (fresbee) ^{*11} , Ur jolasak ^{*12}
Ziurgabetasun inguruneko ekintzak	Natur ekintzak ^{*4} , Orientazioa, Altxorraren bila
Adierazpen eta arte ekintzak	Gorputz adierazpena ^{*7}

Datuen bilketa diagraman errazago ikusteko dinamika bakoitza ekintza motor batean adierazi da, ematen zaion fokuaren arabera.

- Jolas kooperatiboak^{*}. Koltxonetekin bidea egin, tresna ezberdinak eskuz esku, hankaz hanka edota gorputz atal ezberdinekin mugituz trainera jolasa, uztaiak bira dezala, giza gurdia, baloia alde batetik bestera eraman lurra ukitu gabe partaide bakoitza gutxienez behin ukitu beharko duelarik.
- Jolas lehiakorak^{*1}. Armiarma jolasa, baloi eseria, brillet txapelketa, gazteluen jolasa, azeria oiloa eta sugea, pinball, katea.
- Herri Kirolak^{*2}. Lokotx bilketa, soka tira, txingak, erreleboak.
- Euskal Pilota^{*3}. Pilota eta pala. Bat baten aurkako ekintza bezala adierazita egon arren, elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzat har daiteke.
- Natur ekintzak^{*4}. Ibilaldia
- Oreka^{*5}. Fitballekin espalderetan belauniko, eserita, eskuekin helduta, esku bakarrarekin, eskurik gabe ... oreka mantentzen saiatzea, pinoa paretarekin, itzulipurdiak, pinoa paretarik gabe.
- Akrosport^{*6}. Nahiz eta elkarlaneko ekintza bezala agertu taldeka burutzen den dinamika bat delako, adierazpen eta arte ekintza ere bada.
- Gorputz adierazpena^{*7}. Egoera ezberdinak antzeztu, dantza estilo ezberdinak landu talde txikitik koreografia sortuz.
- Softbola^{*8}. Ostiko baseball-a, softballeko partidua.
- Jolas Librea^{*9}. Taldekatzeak, materialak mugatuta kiroldegi barruan zein kanpoan material espezifikoa eman talde bakoitzari eta horrekin jolas bat sortu beharko dute. Bakarkako, bat baten kontrako edota elkarlaneko ekintza baita izan daiteke.
- Abilezia Jolasak^{*10}. Bakarkako ekintzak indibidualki egiten dituztelako da, baina elkarlaneko ekintzat har daiteke nahiz eta banaka egin taldeka kontatzen delako guztira lortzen diren puntuak. Futboleko, eskubaloiko, hockey-eko, saskibaloiko, uztaiko eta freesbeko abileziak.
- Ultimate (fresbee)^{*11}. Fresbee jaurtiketa, fresbee golf-a, urrutira botatzea, jaurtiketa eta harrera ezberdinak egin.
- Ur jolasak^{*12}. Elkarlaneko eta aurkakotasuneko ur jolasak.



1.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko ekintza motor moten azterketa.

2018-2019ko ikasturteko saioak behatuta eta ekintza motor motak kontutan hartuta, argi ikusten da gehien lantzen diren ekintzak elkarlaneko-aurkakotasunekoak direla %41ko portzentaiarekin. Jarraian, bakarkako ekintza %18, ziurgabetasun inguruneko ekintzak %17, elkarlaneko ekintzak %12, bat baten aurkako ekintzak %6 eta adierazpen eta arte ekintzak %6. Horrek esan nahi duena da, Gorputz Heziketako saioetan talde lanean elkarlanean aritzeak garrantzi handia ematen zaiola eta aurkaria izanda ere kontutan hartzen dela.

Ikastolaren helburuetako bat, beraz, argi betetzen dela ikusten da, hau da, taldeko kirolean oinarritzko abileziak garatzea. Hala eta guztiz ere, helburua kirol hitza agertzen da eta kontzeptuei dagokienez kontu handia izan behar da, aurreragoko grafikoetan ikusiko dugun bezala. Izan ere, kirola instituzionalizatutako jarduera fisikoa, arautua eta lehiakorra da. Hau kontutan izan da, kirola hitza erabili beharrean joko jolas eta kirol kontzeptuak erabiltzea egokiagoa izango litzateke.

Bakarkako ekintzak %17ko okupazioa dauka eta elkarlaneko aurkakotasuneko ekintzekin gertatu den bezala, bakarkako helburuan kirola beharrean joko jolas eta kirol kontzeptuak egokiagoak izango lirateke. Kirolak bakarrik ez baitira lantzen,

izan ere, Etxebestek (2001) dioen bezala, "Normalean, "jolasa" hitza apustu gabeko haur-jolasen kasuan aplikatzen da, eta "jokoa" hitza, aldiz, helduen joko apustudunen kasuan".

Hala eta guztiz ere, lehen esandakoarekin jarraituz, edukiak aukeratzeko San Benitoko Gorputz Hezkuntzan lortu nahi diren helburuekin eta aipatutako sailkapen honekin, zaila izango da ikasleak konpetentzia motorrak guztiz garatzea, edukiak ez direla sakontasunez aztertuta prestatzen. Izan ere, Parlebasek (2001) adierazten duen bezala, egoera motorretan eragina duten barne eta kanpoko ezaugarriak ezinbestekoak dira.


Hori dela eta, ondorengo lerroetan azterketa pedagogiko honekin lortu nahi dena frogatuko da, hau da, ikastolak zer nolako edukiak aurkezten dituen barne logika eta kanpo logika ulertu eta aztertu ahal izateko nagusiki espazioan, denboran, harremanetan, materialean, euskal kulturaren eta genero ikuspegian.

6.2. JOKO JOLAS MOTAK: ESPAZIOA, DENBORA, HARREMANAK ETA MATERIALA

San Benito ikastolan 2018-2019ko ikasturteko Heziketa Fisikoko 5.mailako edukiak zeintzuk diren aztertu ostean eta sailkapena ekintza motor motaren araberakoa egin dela ikusita, Gorputz Hezkuntzako saioetako barne eta kanpo logikaren ikuspegiko edukien azterketa egingo da (espazio, denbora, harreman, material eta genero ikuspegitik, Euskal kultura ere kontutan izanik) ondoren edukiak zein joko-jolas motakoak diren zehazteko.

Espazioaren erabileraren esanahia Gorputz Hezkuntzako eskoletan

Ikasleak jarduera fisikoa zein eremutan praktikatzen duten ikustea eta aztertzea oso interesgarria da. Izan ere, bai espazio ziurrean eta ziurgabean aritzen badira, ondorio ezberdinak atera daitezke eremu bakoitzetik. Parlebasek (2001) adierazten duen bezala, ingurune ziurretan edo egonkorretan ikasleek bertan dagoen informazioa kudeatu ostean bere arreta guztia beste aldagai batzuetan jarri dezake. Ziurgabeetan, berriz, jarduera gauzatzen den espazioak eragin handia izaten duelarik ekintzan. Esaterako, ez da berdina igerileku batean igeri egiteak edota itsasoan aritzeak. Eguraldiak bigarrengean eragin handia duelarik.



2.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren espazioaren erabileraren azterketa.

Espazioaren erabilera kontutan hartuta, espazio ziurretan (%76) jarduera gehiago lantzen dira, espazio ziurgabeekin alderatuta (%24). Lazkaoko frontoia Heziketa Fisikoko toki ohikoena izaten da. Horrek adierazi nahi duena da, nahiz eta zenbait ekintza frontoietik at egin beste batzuetan eguraldia dela eta aterpean burutzen dela inongo arazorik gabe. Hala ere, espazio ziurgabeetan ere burutzen dira jarduerak baina normalean eguraldi ona dagoenean lantzen dira.

Horrek adierazten duena da, programaturiko hainbat talde kirol eta jarduera burutzeko espazio espezifiko bat behar dela, hori dela eta espazio ziurrean burututako jardueren portzentajea handiagoa da. Kirolak gizakiak sortu zituenetik etengabeko arautze bat jasan dute, baita espazioari dagokionez, joko eremuak zabalduz. Joko eremu ziur hauetan haurrek ez dute etengabe espazioak dituen ezaugarriak irakurri eta aztertu beharrik eta Gorputz Hezkuntzan ematen den adimen motor espazialaren baliogabetzea ematen dela ikusi daiteke. Ingurune ziurrean espazioak ziurgabean gertatzen den ez bezala, ez baitu interpretatu eta deskodifikatu beharreko informazio gehigarririk eskaintzen.



3go irudia: Heziketa Fisikoko eraikin nagusia

Denboraren esanahia Gorputz Hezkuntzako eskoletan


Espazioaren erabileraren azterketaren eta analisiaren garrantziaz gain, lehen aipatutako taldeko jarduera motorrek eragina izango dute denboraren erabilera edota zentzua zein den aztertzeko. Alde batetik, edukietan dauden jarduera batzuk

irabazle eta memoriadunak izango dira eta bestetik, irabazle gabe edo memoria gabeak. Honek ikaslea, denboraren bi ikuspegi eraikitza bultzatzen du, segun eta zein jarduera lantzen den.

Etxebestek (2005) denbora lineal (irabazleak eta galtzaileak) eta denbora zikliko (ez dago irabazlerik) bezala definitzen ditu.

Ziklikoa: Egoera motor hauetan, jolasak ez direnez inoiz amaitzen, ez du inork irabaziko eta ikasleak etengabe jolasean egon daitezke.

Lineala: Egoera motor hauetan bi rol gailentzen dira: irabazlearen eta galtzailearena.



3.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren denboraren zentzuaren azterketa.

Beraz, datuak kontutan izanik, argi ikusten da memoria duten jarduera motorrek (%65) pisu handia dutela, memoria gabekoekin alderatuta (%35). Horrek joko jolas moten grafikoan ikusten den ondorio berdina ateratzea eskatzen du, hau da, ohitura handia dagoela irabazle eta galtzaileak dauden jolasak bultzatzera.

Helburu honek bat egiten du San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko ideietako batekin, hau da, ikasleak aktiboki parte hartzera bultzatzen dituztela dinamika mota hauek. Baina aldi berean arrisku handia egoten da joko jolasen arauak ez betetzeko. Hala eta guztiz ere, Larrañagaren (2014) ustetan, ikasleek arauen

onarpenean, galtzen eta irabazten ikasteen, taldeak osatzean eta abarretan pertsona bere osotasunean inplikatzeko da, emozio eta sentimendu guztiekin.

Ikasleek euren emozioak identifikatzen eta kudeatzen ikasita garrantzi handia izango du pertsona hobeak lortu eta gizarte hobea eraikitzeko. Ideia honek bat egiten du ikastolaren hezkuntza proiektuak giza balore eta eskubideetan oinarritutako etika jorrazteko heziketa integralarekin, ikasleriaren jarrera kritikoa eta parte-hartzailea bultzatzen baititu. Horretaz gain, ikastolak gehien lantzen dituen edukiak joko lehiakorrak direla ikusten da eta honekin ikasleek jokabide lehiakorrak izango dituzte, euskal hiritar mota zehatz bat garatzen delarik. Hau bizitzako ohitura hauek euren balore, behar edo plazer zehatzak dituztela ikusi dezakegu. Dirua irabazten duen gizonak, irabazteko beharra duela esan daiteke, irabazteko egingo du lan eta etxearen irabazirako joango da merkatura, horrek heziko du etapa horretan, jarduera fisikoen arloan, herri kirol edota plazako apustuetara bideratu izan delarik baserritar gizonezkoa. Azken finean, apustua irabazteko, dirua edo prestigioa izan, irabaztea zen helburua. Ideia honek aurreko datuekin bat egiten du, jarduera askok irabazle eta galtzaile bat duelako.


Harreman mota ezberdinen esanahia Gorputz Hezkuntzako eskoletan

Barne logikaren azterketarekin jarraituz, espazio eta denboraren zentzuaren analisia egiteaz gain, joko jolaseko jarduera motorretan ikasleak badu beste aldagai bat oso interesgarria dena ezagutzea eta alderaketak egitea. Harreman motak hain zuzen ere.

Harremanak ikastolan asko ematen dira, bai ikasleen artean, irakasleen artean zein irakasle eta ikasleen artean. Hori dela eta Gorputz Hezkuntzan oso interesgarria izan daiteke harreman hauek lantzea.

Parlebas (2001) autoreak bere lanean harremanak psikomotorretan eta soziomotorretan banatzen ditu. Jolas psikomotorrak, esaterako, bakarka jolasteari deitzen dio eta kanpoko eragilerik gabe gertatzen da. Bestetik, soziomotorra partaideen interakzioan ematen den egoera motorrari deitzen zaio. Gaineraz, harreman mota honetan, ondorengo bereizketak ematen dira: aurkaritza / lankidetzakoa, lankidetzakoa eta aurkaritzakoa.


- **Lankidetzta / aurkaritza.** Bi ikasle edo gehiagoren arteko laguntzarekin eta aurkariaren eragozpenarekin jarduten dute beraien helburua lortu ahal izateko.
- **Lankidetzta.** Erronka modu bateratuan gainditzeko sortzen diren harremanak (baloi pasea ...).
- **Aurkaritza.** Aurkariak erronka gainditu dezaten oztopatzeko sortzen diren harremanak.



4.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren harremanen azterketa.

Datuei erreparatzen badiegu garbi ikusten da jarduera soziomotorrek (%77) pisu handiagoa dutela psikomotorrek baino (%23). Horrek irakaslearen metodologiari dagokionez, talde lanean lan egiteko egoera motor gehiago planteatzen direla adierazten du. Beraz, taldea banakoa baino garrantzitsuagoa dela esan daiteke. Honek esan nahi du, talde lanaren bidez emozioak lantzen direla, ikaslearen garapen akademiko eta pertsonala lortzeko bidea izanik. Baina garapen-integralaren erronkak irakaslearen hezkuntza sozio-emozionala eskatzen du, hasierako eta etengabeko formakuntzan; horrek ikaslearen ongizateaz gain, irakaslearena ere ahalbidetzen baitu.

Beraz, ikasleen adimen soziomotorra ere lantzen dela esan daiteke, San Benito Ikastolak adimen emozional sozioafektiboari garrantzia emanez.



5.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren harreman sozomotorren azterketa.

Hori dela eta, 5.diagraman harreman sozomotorren grafiko bat agertzen da, non aurkaritza eta lankidetzak (%46) gehien lantzen diren jarduera motorrak ikusten den. Lankidetzak %39-a eta aurkaritza %15-a. Argi ikusten da beraz, ikastolan, talde lana dela gehien bultzatzen den joera. Izan ere, ikaslea besteekin interakzioan eta harremanetan dago, Parlebasek (2001) adierazten duen bezala, helburua taldearena da eta hau lortzeko denak taldean aritu daitezke (lankidetzan), aurkaritzan edota talde lanean beste aurkari batzuek kontra (aurkaritza/lankidetzan).

Ikastolan beraz, aurkaritza / lankidetzako jarduera motorrekin Gutierrezek (1995) aipatzen dituen besteenganako errespetua, erlazio soziala, laguntasuna, lehiakortasuna, sentimenduen adierazkortasuna, ardura soziala, bizikidetasuna, justizia, besteenganako ardura eta talde kohesioa bezalako baloreak lortuko dituzte. Eta honekin batera, auto diziplina, lorpena kiroltasuna eta joko garbia, sakrifizio espiritua, iraunkortasuna, auto domeinua, errekonozimendu eta errespetua (eredu soziala), umiltasuna, obediencia, auto egitea, auto adierazkortasuna eta inpartzialtasuna lortuko dituzte.

Lehen aipatu bezala, taldeari banakoari baino garrantzi gehiago eman zaiola ikusten da, honekin emozioak sozioafektibitatearekin lantzen baitira jarduera


ezberdinetan. Hau da, talde lanean aritzean empatia kolektiboa lantzen da (pazientzia, konfiantza ...).

Horretaz gain, adimena sozomotorra ere lantzen da adimen kooperatiboa eredu ezaguna eta partekatua antolatuz eta aurkaritzan ere taldekoen oposizioan egotean besteen ekintzen zentzuak asmatu eta bereak ezkututzen lantzen ikasten eta praktikatzten dute.

Materialaren erabileraren esanahia Gorputz Hezkuntzako eskoletan

Gorputz Hezkuntzako saioetan jardueretarako material espezifikoa erabil daiteke. Hala nola, kirol bakoitzak bere materialaren beharra du, futbolaren kasuan edota euskal pilotaren kasuan.

Larrañak (2008) ondorioztatzen du, Heziketa Fisikoko eskoletan erabiltzen den materiala gizartearen garapenarekin bat doala.



6.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko jarduera motorren materialen erabileraren azterketa.

Materialaren erabilerari dagokionez, San Beniton egoera motorrak praktikatzten ari diren bitartean ikasleek material espezifikoa (%59) dinamika gehiagotan erabiltzen dute. Honek adierazten duena da, ikasleak momentu horretan garrantzi gehien duten materialak erailiko dituela. Hala ere, testuinguruak garrantzi handia izango du materiala erabiltzerako garaian, izan ere, materialaren erabilpena gizartearen

menpe baitago. Baina badira materialen erabilpena eskatzen ez duten jarduerak ere (%41).


Hau ikusirik, esan daiteke 2018-2019ko ikasturtean egindako jarduerak kontutan izanda, material asko erabili gabe gelditu direla, hauen erabilgarritasuna zalantzan jarriz eta beste mota batzuetako jarduerak egitera bultzatuz, hots, espazio ziurgabeko ekintza gehiago ...

Joko-jolas moten esanahia Gorputz Hezkuntzako eskoletan

Hau esanda, Gorputz Hezkuntzako irakasle batek argi izan behar du joko eta jolasak zer diren bereiztea. Hori dela eta, Jokoa "irabazteko" denbora pasatzat kontsidera daiteke eta plazerra aurkariaren kontra lehiatzeak eta irabazteak ematen du (Etxebeste & Urdangarin, 2004). Jokoaaren ezaugarri nagusia aipatutako lehia izan arren, ez dira joko guztiak lehiakorak. Badira irabazle gabeko jokoak eta hauen garrantzia ere nabaria da. Bertan, norberaren burua besteen aurrean nabarmentzeko egiten diren jarduerak dira irabazle ezkutuarekin (Etxebeste & Urdangarin, 2004). Aldi berean, Etxebestek (2008) bi hauen arteko bereizketa bat argi uzten du, ondorengo testuan azaltzen den bezala: "Decimos "jokatzen dut" cuando hay algo en juego, además los vascos acostumbramos a enfrentar una casa a la otra para jugar unos contra otros, por ejemplo en el fútbol, solemos decir "los de casa contra los de fuera". Cuando hablamos de juegos, en cambio, nuestro objetivo no es otro que jugar los unos con los otros. Ese es el caso, por ejemplo, del juego del escondite. En esos casos, pretendemos disfrutar del placer que nos genera el acto de compartir que implica el juego en sí mismo y esa sensación queda grabada en nuestra memoria; secretos, anécdotas... En cambio, cuando competimos, tan solo recordamos el resultado final; el triunfo o la derrota"

Ekintza motorren bidez ulertu ahalko dugu Gorputz Hezkuntza saioetan ematen den kultura motorra. Gure kasuan, Euskal kultura motorra, ulerturik Euskal Herrian etorkizuneko hiritarrak izango diren ikasleak direla Heziketa Fisikoko saioetako parte-hartzaileak.

Segun eta pertsonak non bizi diren kultura motor ezberdina garatuko dute. Halaber, hezkuntza gizarteratzeko tresna den heinean, gizarte zehatz baterako bideratua izango da, kultura zehatz baterako, hortaz, Gorputz Hezkuntza ere, gizarte zehatz baten kultura motorra izango du.



7.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko joko jolas moten azterketa.


Aurreko puntuarekin jarraituz, diagrama honetan saio guztiak aztertuta eta kontutan hartuta joko jolasek zer adierazten duten argi ikusten da gehien lantzen diren jarduera motorrak jokoak (%49) jolasa-jokoak (%29) jolasa (%22). Beraz, datu hauek erreparatuta, argi ikusten dinamika bat lantzen denean irabaztea edo galtzeak garrantzi handia hartzen duela.

6.3. GENEROAREN ERAGINA JOKO-JOLASEN AZTERKETAN

Ikasle bakoitzaren praktika aldi batean ikus daitezken egoera motor bateko barneko logikako atal ezberdinak ikusi eta aztertu ostean, azterketaren azkeneko puntua ikusteko momentua da, hots, ikasleei espazioari dagokionez, eskolak dituen kanpo logika balioak ulertu eta aztertzeke, nagusiki, generoaren ikuspegian. Hau esanik, Euskal kultura generoren ikuspegitik ardatz hartuta azterketa hau egitea interesgarria da, non kapitalismoaren bilakaeran bertan jarduera fisikoen ohiturak ere eraldatzen joan diren. Euskal kultura tradizioaletik hona asko aldatu dira gauzak. Garai batean, baserrietan rola guztiz bereizita zeudela esan daiteke: gizonek dirua etxera ekartzen zuten; emakumeek etxea eta etxeokoak zaintzen zituzten.

Beraz, Etxebestek (2008) dioen bezala "normalean gizonzkoek jokoarekin lotuta daude eta gizon eta emakumeak, elkarrekin, jolasarekin. Bestalde, emakumeek espazio "berezia" dute teknikoki jolasa/jokoa deitzen zaiona eta bien arteko

nahasketa dena, adibidez sokasaltoa. Hau estruktura kooperatiboa da, objektuduna, espazioa herriko plaza litzatekeena eta normalki irabazle gabea, hau da ez du memoriarik. Ez dago bultzatuta irabaztearen plazerra jarraituz, ezta elkarbanatzearen plazerra jarraituz, baizik eta errepikapenaren plazerra bultzatzen du. Errepikatzen da saltoa, dantza, aerobika... hori egiten gozatzen dute eta hori gizartearen ispilua da”.



8.Diagrama. San Benito Ikastolako Heziketa Fisikoko joko jolasen generoaren araberako azterketa.

Datuei erreparatuta, nahiz eta San Benito Ikastolako Hezkuntza Proiektuko helburuetako bat hezkidetzak bultzatzea den, gailentzen diren joko jolasak gizonezkoenak dira (%41) neutroarekin batera (%41) eta emakumezkoena (%18). Beraz, kontuan hartu beharra dago sexuen arteko desberdintasunak gainditzearen alde egin behar duten irakasleak, gurasoak eta abarrekokoak desberdintasun horietan izan direla sozializatuak, eta beraz, inkontzienteki jarrera, espektatiba eta aurreiritzi anitz barneratuta dituztela (Xavier Bonal, 1997).

Horren jakitun izanda, eskolak, hezkidetzalea izateko, gizarte taldeen ezberdintasun guztiak kontuan hartu behar ditu. Izan ere, eskolak desberdintasunak erreproduzitzen dituela esaten da, maskulinoa denaren eta femeninoa denaren bereizketan lagunduz, adibidez. Horregatik, eskolak lana bi norabidetan egin behar duela ulertzen da. Alde batetik, sexuen arteko

desberdintasunak gutxitu behar ditu, eta bestetik, maskulinoa eta femeninoa denaren arteko hierarkiarekin apurtu (Xavier Bonal, 1997). Amparo Tomek eta Marina Subirats-ek (2007) ulertzen dute lortu beharrekoa zera dela: pertsona bakoitzak nola bizi nahi duen erabakitzea eta aurretik ezarrita dauden moldeek haien jarrerak ez baldintzatzea. Píriz, Patricia-k eta Sosa, Rodrigo-k (2012) La Educación Física desde un enfoque de género gidan zenbait ideia ematen dizkigute. Gidan esaten da 9- 11 urte bitartean haurrak sexu/genero kontzeptuen oinarri kulturala sumatzen hasten direla. Horregatik, etapa horretan, oso garrantzitsua da haurrek haien gorputzaren mugimenduekin eta gaitasunekin mugarik gabe saiakuntzak egitea. Gidan zera proposatzen da: haurrek askatasunez hartzea rol ezberdinak, eta haien sexuarekin bat ez datozen ekintzak egiteko eta materialak erabiltzeko aukera ematea. Zentsura eta barregarri geratzeko arriskuak ekidin behar direla ere esaten da. Luixa Reizabalek (2015) ere Genero berdintasunean hezteko gidan Gorputz Adierazpenak ekarpenak egin ditzakeela azaltzen du. Autore honen ustetan, arlo honetan lankidetzan aritu behar da. Jokalariak elkarri lagundu behar diote dute helburu komun bat lortzeko eta horrek enpatian, autoestiman besteekiko estimuan eta komunikazioan lagun dezake. Bestalde, rolen antzezpenean errealitate soziala antzezten denez, beste pertsona baten tokian jarri eta emozioen ulermena bezalako gaitasunak garatzen dira. Ipuinei dagokienez, hauei esker munduari buruzko jarrerak eta ideiak alda daitezke, 12 eta haurrek ipuinetan azaltzen diren egoera zen pertsonaiengandik zenbait balio, hala nola, generoaren ingurukoak, barnera ditzakete. Agerian geratu da, beraz, Gorputz hezkuntzan Hezkidetzaren bultzatzeko moduak badaudela, eta irakaslearen esku dagoela Gorputz Hezkuntzaren ikuspegi androzentrikoa gainditu eta genero berdintasunean hezteko pausuak ematea.

7. ONDORIOAK

Lanari amaiera emateko, ondorio nagusi batzuk aterako ditut azterketa honen inguruan. Hori dela eta, hasteko aipatu nahi dudana da, sarreran zein lanaren helburuetan adierazten dudan bezala, San Benito Ikastolan Gorputz Heziketako irakasle ibili izan naizenean, edukiak prestatzerakoan nire aburuz hainbat ahulgune ikusi ditut. Esaterako, edukiak barne eta kanpo logikaren egoera motorren ezaugarrien multzoak ikasleengan duten eragina ez da kontutan hartu eta hori dela eta honen inguruko azterketa bat egitea beharrezkoa ikusi dut. Izan ere, ezaugarri hauek desberdinak dira joko jolas batetik bestera, hauek aldatuz gero beste joko jolas batera bilakatuko lirateke, beste ezaugarri eta arau batzuekin. Horretaz gain, Ikastolako Gorputz Hezkuntzako helburuak finkatzerako garaian erabiltzen den hizkuntza ez dela egokia ikusi dudanez beste modu batera egokiago izango litzateke, izan ere, kirolak lantzen dira? zein jarduera? jolasak badaude? joko jolasak? Ia jolasak? Ia jokoak? Gaineraz, jorratzen diren helburuak oso urriak dira eta gutxienez, lotura bat bilatuko nuke bai espazioaren, memoriaren, harremanen, materialen eta generoaren ikuspegiekin, izan ere, ikasle batek eskuratu beharreko kompetentzia motorreko edukiak sakontasunez lantzen lagunduko dutela iruditzen zait.

Beraz, aipatutako guztia kontutan hartuta, datuen bilaketa eta azterketa egin dut eta konturatu naiz, San Benito Ikastolan ikasleek jarduera ezberdin hauek burututa, garrantzia harreman soziomotorrei ematen dietela, jarduera piskomotorrak oso urriak izanik. Honekin taldeko lana oztopen aurrean irtenbideak bilatzeko ere, garrantzi handia hartuko du. Ikasleek euren emozioak identifikatzen eta kudeatzen ikasita garrantzi handia izango du pertsona hobeak lortu eta gizarte hobe eraikitzeko. Ideia honek bat egiten du ikastolaren hezkuntza proiektuak giza balore eta eskubideetan oinarritutako etika jorratzeko heziketa integralarekin, ikasleriaren jarrera kritikoa eta parte-hartzailea bultzatzen baititu. Horretaz gain, ikastolak gehien lantzen dituen edukiak joko lehiakorrak direla ikusten da eta honekin ikasleek jokabide lehiakorrak izango dituzte, euskal hiritar mota zehatz bat garatzen delarik. Hau bizitzako ohitura hauek euren balore, behar edo plazer zehatzak dituztela ikusi dezakegu. Dirua irabazten duen gizonak, irabazteko beharra duela esan daiteke, irabazteko egingo du lan eta etxearen irabazirako joango da merkatura, horrek heziko du etapa horretan, jarduera fisikoen arloan, herri kirol edota plazako apustueta bideratu izan delarik baserritar gizonezkoa. Azken finean, apustua irabazteko, dirua edo prestigioa izan,

irabaztea zen helburua. Ideia honek aurreko datuekin bat egiten du, jarduera askok irabazle eta galtzaile bat duelako.

Ni irakasle naiz heinean, bai harreman soziomotorrei zein psikomotorrei antzeko garrantzia emango nieke. Harreman psikomotorrekin ikasle batek indibidualki jarduera motor bati nola aurre egin ikasiko baitute. Askotan, soziomotorretan ikasle batzuk ezkutatu egiten baitira.

Espazioaren erabilerari dagokionez, espazio ziurreko ekintzek pisu handia dutela ikusi da datuetan. Horrek adierazten duena da, programaturiko hainbat talde kirol eta jarduera burutzeko espazio espezifikoko bat behar dela, hori dela eta espazio ziurrean burututako jardueren portzentajea handiagoa da. Kirolak gizakiak sortu zituenetik etengabeko arautze bat jasan dute, baita espazioari dagokionez, joko eremuak zabalduz. Joko eremu ziur hauetan haurrek ez dute etengabe espazioak dituen ezaugarriak irakurri eta aztertu beharrik eta Gorputz Hezkuntzan ematen den adimen motor espazialaren baliogabetzea ematen dela ikusi daiteke. Ingurune ziurrean espazioak ziurgabean gertatzen den ez bezala, ez baitu interpretatu eta deskodifikatu beharreko informazio gehigarririk eskaintzen.

Honek materialaren erabilerarekin eta joko jolasek irabazle eta garailea izaterekin lotura handia dutela pentsatzen dut. Azken finean, espazio ziur batean burutzen diren joko jolas eta kirolak leku finko bat izaten dute non kanpoko eragileek ez duten jokoaren igarotzea oztopatzen.

Aldagai guzti hauek kontutan hartuta, nik irakasle bezala, jardueren osotasuna hartuta praktikan denak jarriko nituzke denei lehen aipatu bezala antzeko garrantzia emanez. Esaterako espazio ziurgabeko, material gabeko eta irabazle eta galtzaile gabeko joko jolasak kontutan izanik. Modu honetara, irudimena gehiago landuko dutela pentsatzen dut eta nahiz eta irabazteak eta galtzeak emozioen lanketa garrantzitsu eta interesgarria ekarri, hau gabe ere denak gustura egotea landu dezakeela iruditzen zait. Horrela gaineraz, bigarren hezkuntzara joaten direnean aspektu guztietan antzeko oinarria izango dute (jokoak, ia jokoak, joko jolasak, ia jolasak eta jolasak antzeko landuz) eta beraiek erabakiko dute zertan espezializatu edo ez, bai kirol klubetan, aisialdi taldeetan, denbora librean etab.

Berdina gertatzen da genero ikuspegiarekin, emakumeari indar gutxiago ematen zaion gizarte honetan, bai emakume zein gizonen joko jolasei garrantzi berdina emango nioke. Nire ustez, ikasleak etorkizuneko hiritar prestatzeko ezinbestekoa

da berdintasunaren ideia zein den argi azaltzea, eta honen barruan teoriak gain praktikan ere islatuta egon beharra dago, gizonezko zein emakumezkoen joko jolasak landuz.

Ekintza motorren bidez ulertu ahalko dugu Gorputz Hezkuntza saioetan ematen den kultura motorra. Gure kasuan, Euskal kultura motorra, ulerturik Euskal Herrian etorkizuneko hiritarrak izango diren ikasleak direla Heziketa Fisikoko saioetako parte-hartzaileak.

Segun eta pertsonak non bizi diren kultura motor ezberdina garatuko dute. Halaber, hezkuntza gizarteratzeko tresna den heinean, gizarte zehatz baterako bideratua izango da, kultura zehatz baterako, hortaz, Gorputz Hezkuntza ere, gizarte zehatz baten kultura motorra izango du. Nik uste dut eskola bakoitzak bere testuingurua zein den kontutan hartuta, joko jolas bat edo bestea landu beharko litzatekeela. San Benitoren kasuan, hau batzuetan bete dela ikusi dut. Nahiz eta joko jolas gehienak kanpokoak izan ikastolaren testuingurura egokituak izan direla behatu dut. Hala ere, kultura ezberdinetako ikasleak izan da, aniztasun hori ez da indar handiko elementu bat bezala hartu. Nire kasuan, lehenik eta behin eskolaren testuingurua zein dena ikusiko nuke eta gela bakoitzean kultura ezberdinetako ikasleak izango banitu, herrialde horietako joko jolasak baita lantzen saiatuko nintzateke. Modu honetara, ikasle hauek ere errazago ohituko lirateke eskolako dinamiketara eta eskola ere beraien ezaugarrietara.

Hau esanik, lan honek Heziketa Fisikoko ikuspegia erabat aldatzeko lagundu izan dit. Izan ere, lehen galdera asko egiten nizkion nire buruari edukien inguruan eta orain edukiak aukeratzeko garaian, azterketa sakon bat egin dezakedala pentsatzen dut, bai ikasleen ezaugarriak kontutan hartuta ikaskuntza prozesuan laguntzeko eta bai nik irakasle bezala ikasle hauek zer garatu nahi duten hausnartzeko eta eskolako hezkuntza proiektua kontutan hartzeko ere.

8. ERANSKINAK

Edukien sailkapena barne logikako espazioari, denborari, harremanari eta materialari dagokionez

EDUKIAK	ESPAZIOA	DENBORA	HARREMANA	MATERIALA
Herri Kirolak	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Softbol	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Jolas librea	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Colpbol	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Ultimate	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Ur jolasak	Ziurgabea	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Natur ekintzak	Ziurgabea	Irabazlerik gabe	Soziomotorra	Ez
Orientazioa	Ziurgabea	Irabazlea bai	Soziomotorra	Bai
Altxorraren bila	Ziurgabea	Irabazlerik gabe	Soziomotorra	Ez
Gorputz adierazpena	Ziurra	Irabazlerik gabe	Soziomotorra	Ez
Oreka	Ziurra	Irabazlerik gabe	Psikomotorra	Ez
Atletismoa	Ziurra	Irabazlea bai	Psikomotorra	Ez
Abilezia jolasak	Ziurra	Irabazlea bai	Psikomotorra	Bai
Euskal pilota	Ziurra	Irabazlea bai	Psikomotorra	Bai
Jolas kooperatiboa	Ziurra	Irabazlerik gabe	Soziomotorra	Bai

Akrosport	Ziurra	Irabazlerik gabe	Soziomotorra	Ez
Jolas lehiakorrak	Ziurra	Irabazlea bai	Soziomotorra	Ez

Harreman soziomotor moten sailkapena edukiei dagokionez

EDUKIAK	AURKARITZA/LANKIDETZA	LANKIDETZA	AURKARITZA
Herri Kirolak			
Softbol			
Jolas librea			
Colpbol			
Ultimate			
Ur jolasak			
Natur ekintzak			
Orientazioa			
Altxorraren bila			
Gorputz adierazpena			
Oreka			
Atletismoa			
Abilezia jolasak			
Euskal pilota			
Jolas kooperatiboa			
Akrosport			
Jolas lehiakorrak			

~~Psikomotorrak~~

Joko jolasen sailkapena edukiei dagokionez

EDUKIAK	JOKO/JOLAS MOTA
Herri Kirolak	Ia jokoa (jokoa)
Softbol	Ia jokoa (jokoa)
Jolas librea	Ia jokoa (jokoa)
Colpbol	Ia jokoa (jokoa)
Ultimate	Ia jokoa (jokoa)
Ur jolasak	Joko-jolasa
Natur ekintzak	Ia jolasa (jolasa)
Orientazioa	Joko-jolasa
Altxorraren bila	Jolasa
Gorputz adierazpena	Ia jolasa (jolasa)
Oreka	Joko-jolasa
Atletismoa	Ia jokoa (jokoa)
Abilezia jolasak	Jokoa
Euskal pilota	Jokoa
Jolas kooperatiboa	Joko-jolasa
Akrosport	Ia jolasa (jolasa)
Jolas lehiakorrak	Joko-jolasa

Taula honetan lehenago aipatu diren aldagaiak kontutan hartu dira joko jolasen sailkapena egin ahal izateko. ()-an jokoa, joko-jolasa eta jolasa agertzen da, azterketa pedagogikoko diagramean horrela azaldu delako.

9. BIBLIOGRAFIA

- Anton, M. (2009). *Jolasak eta hezkuntza*. Web orri honetatik aterata: <http://alaibizi.blogspot.com/2009/12/jokoa-eta-jolasa.html>
- Bonal, Xavier (1997). *Las actitudes del profesorado ante la coeducación. Propuestas de intervención*. Barcelona: Grao
- Etxebeste, J. (2001). "*Aisiaren bi euskal kontzeptu: jokoa eta jolasa*". In: *Euskoikaskuntzaren XV. Kongresua: Donostia-Baiona 2001. Euskal zientzia eta kultura, etasare telematikoak*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002; 277-282 or.
- Etxebeste, J eta Urdangarin, C (2005). *Euskal jokoa eta jolasa. Transmitiendo una herencia vasca a partir del juego*. Eusko jaurlaritza.
- Etxebeste, J. (2008). *Haur batek jakin beharko luke gure kulturaren zer nolako joko eta jolasak eman diren*. EuskoNews. Web orri honetatik aterata: http://www.euskoNews.eus/0462zBK/elkar_eu.html
- Etxebeste, J., & Urdangarin, C. (2004). Reflexiones sobre la educación física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca. In F. Lagardera & P. Lavega (Eds.), *La ciencia de la acción motriz* (pp. 119–138). Lleida: Edicions de la Universitat de Lleida.
- Garcia, A.J. (d.g). *La lección de juego motor reglado*. Capítulo V.
- Gutierrez, S. (1995). *Valores sociales y deporte*. Madrid: Editorial Gymnos.
- Larrañaga, A. (2008). *Irakaslearen pentsamendua gorputz hezkuntzako Joko eta Jolasetan: Getxoko lehen hezkuntzako ikastetxe baten analisisa*. Web orri honetatik aterata: <http://www.euskoNews.eus/0462zBK/gaia46201eu.html>
- Larrañaga, L. (2014). *Gorputz hezkuntza baliabide egokia da ikasleen garapenerako*. Web orri honetatik aterata: <https://www.berria.eus/albisteak/91302/luis-larraaga-sohat-eko-eleduna-gorputz-hezkuntza-baliabide-egokia-da-ikasleen-garapenerako.htm>
- Larraz, A. (2004). *Los dominios de acción motriz como base de los diseños curriculares en educación física: el caso de la Comunidad de Aragón en educación primaria*. In L. F. L. P. (Ed). *La ciencia de la acción motriz* (pp. 203-226). Lleida: Universitat de Lleida. Servei de Publicacions.
- Larraz, A. (2008). *Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria*. Seminario Internacional de Praxiología motriz.

- López Pastor, M; Monjas Aguado R; Pérez Brunicardi, D. (d.g). *Profundizando en la temática. Bases para una mejor comprensión de estos planteamientos. Buscando alternativas a la forma de entender y practicar la educación física escolar.*
- Weber, M. (1905). *La ética protestante y el espíritu del capitalismo.* Abellan García, J. (2012) itzulia. Alianza Editorial.
- Parlebas, P. (1999). *Jeux, sports et sociétés* (2 ed). Paris: INSEP.
- Parlebas, P. (2001). *Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz.* Barcelona: Paidotribo.
- Parlebas, P. (2006). *L'action motrice, fer de lance de l'éducation physique. Les Cahiers EPS de l'Académie de Nantes 34, 5-9.*
- Piedras, P.A. (2001). *El cocepto de cultura en Max Weber.* Filosofía de la cultura: actas del IV Congreso Internacional de Antropología Filosófica de la Sociedad Hispánica de Antropología Filosófica, 11 al 13 de septiembre de 2000.
- Píriz, Patricia eta Sosa, Rodrigo (2012) Guía didáctica: La Educación Física desde un enfoque de género. Instituto Nacional de las Mujeres del Ministerio de Desarrollo Social, Montevideo (Uruguay). 2015eko urriaren 15ean berreskuratua
http://www.inmujeres.gub.uy/innovaportal/file/21303/1/edfisica_genero.pdf
tik.
- Reizabal, Luixa (2015). *Genero berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat.* Bilbo: UEU
- Salegi, E. (2012). *Hezkuntza premia bereziak duten ikasleei emandako erantzuna eskola inklusiboan.* Eskoriatza: HUHEZI (MU).
- Subirats, Marina eta Tome, Amparo (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación.* Bartzelona: Octaedro.
- Zulaika, J. (1985). *Bertsolariaren jokia eta jolasa.* Editions Baroja.